

<h1>Gorbeialde</h1> <p>Landa Garapenerako Alkartea Asociación de Desarrollo Rural</p>	<h2>I.TURISMO MAHAIA I. MESA DE TURISMO BATZAR-AGIRIA   ACTA</h2>
---	---

<b>Gaia / Asunto:</b> 1. Turismo Mahaia / 1. Mesa de Turismo	<b>Reunión 1. Bilera</b>
<b>Lekua / Lugar:</b> ADR Gorbeialde LGE (Areatza)	<b>Data / Fecha:</b> Abenduak 22 Diciembre <b>Ordua / Hora:</b> 10:30

**Bildutako pertsonak / Asistentes:**

Ordezkaritza / Representación	Erakundea, enpresa / Entidad, empresa	Izen – abizenak / Nombre y apellidos	Etorritakoa / Asistente
Udala / Ayuntamiento	Orozkoko Udala	Begoñe Olabarria	x
Udala / Ayuntamiento	Areatzako Udala	Josu Basozabal	x
Udala / Ayuntamiento	Dimako Udala	Oier Belasko	x
Informazioa / Información	Orozkoko Museoa	Nerea del Campo	x
Enpresa / Empresas	Iparnature S.L.	Iñigo Barañano	x
Ostatua / Alojamiento	Hotel Balneario Areatza	Iker Mintegi	x
Ostatua / Alojamiento	Hotel & Spa Etxegana	Luis M <sup>a</sup> Orcera	x
Alkartek / Asociaciones	Ipizki Taldea	Aloña Albizu	x
Presidentea / Presidente	ADR Gorbeialde LGE	Txomin Ozerinjauregi	x
E-J. / G.V. Euskadi	Delegación Territorial	Ana Lekue	x
Idazkaria / Secretario	ADR Gorbeialde LGE	Iñaki Saenz de la Fuente	x
Bestelakoak / Otros	ADR Gorbeialde LGE	Peli Manterola	x
Bestelakoak / Otros	Zuiako Koadrila / Cuadrilla de Zuia	Oihana Mtz. Errasti	x
Bestelakoak / Otros	Gorbeia Central Park	Ioar Galbarriatu	x

** Excusan asistencia los representantes de Restauración, Sector Primario y Artesanía y Diputación Foral de Bizkaia.	** Ez etortzeko arrazoia azaldu dute hauetako ordezkariak: Jatetxeak, Lehenengo Sektorea eta Artisautza eta Bizkaiko Foru Aldundia.
--	---

<p><b>1. Orden del día</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Mesa de Turismo   Turismo Mahaia</li> <li>b) Turismo 2011</li> <li>c) Turismo 2012</li> <li>d) URT-OTS Timeline ENE-FEB</li> <li>e) FITUR 2012</li> </ul> <p><b>2. Desarrollo de la reunión:</b></p> <p><b>A   OBJETIVO</b></p> <p>El objetivo de la primera Mesa de Turismo es el de constituir dicho órgano así como presentar el nuevo modelo de referencia para el turismo en la comarca de Gorbeialdea de cara a los próximos años. Para ello, la mesa cuenta con una amplia representación de los diferentes subsectores de influencia en el turismo, tanto públicos como privados.</p> <p>Además de la constitución de la misma, se aborda un resumen de las actividades realizadas durante el año 2011 con el objetivo de facilitar la comprensión de las líneas de trabajo del turismo en la comarca a los asistentes. El objetivo final de la reunión es trasladar un nuevo modelo de gestión público-privada</p>	<p><b>1. Gai-zerrenda /</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Mesa de Turismo   Turismo Mahaia</li> <li>b) Turismo 2011</li> <li>c) Turismo 2012</li> <li>d) URT-OTS Timeline ENE-FEB</li> <li>e) FITUR 2012</li> </ul> <p><b>2. Bileraren Garapena:</b></p> <p><b>A   XEDEA</b></p> <p>Lehenengo Turismo Mahaiaren xedea da organo hori eratzea eta erreferentziakoa eredu berria aurkeztea Gorbeialdea eskualdeko turismorako, datozen urteei begira. Horretarako, mahaiak turismoan eragina duten azpisektore ezberdinen ordezkariak zabala dauka, publikoak zein pribatuak.</p> <p>Turismo Mahaia eratzeaz gain, 2011n eginiko jardueren laburpena azaldu da, bertaratutakoek errazago ulertzen dituzten eskualdeko turismoarekin lotutako lan-ildoak. Batzarraren azken helburua da turismo-arloko kudeaketa publiko-privatuaren eredu berria jakinaraztea. Horretan, Landa Garapenerako Gorbeialde Alkartean, turismoa kudeatzeko erakundea den</p>
--	---

turística en la que la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde, como ente de gestión turística, que garantice unas actividades para el 2012 consensuadas por todos los subsectores representados y alineado con el Plan de Competitividad e Innovación de Euskadi 2010-2013 del Gobierno Vasco.

## B | DESARROLLO

- Se presenta a los asistentes uno por uno para dar conocimiento de los representantes provisionales de la Mesa de Turismo.
- El Presidente da comienzo a la Mesa de Turismo determinando el esfuerzo realizado en turismo por todos los subsectores del turismo durante este 2011 y animando a la participación de los mismos en la Mesa.
- El secretario da comienzo al desarrollo de los temas a abordar:

### 1 || MESA DE TURISMO ||

Se pone sobre la mesa un nuevo modelo de gestión comarcal alineado con la Viceconsejería de Turismo y Comercio de Gobierno Vasco mediante la Agencia Vasca de Turismo Basquetour, con quien el ente de gestión turística (ADR Gorbeialde) será el interlocutor directo.

Este nuevo modelo necesita de participación público y privada para la puesta en marcha de las actuaciones y reflexiones de turismo para los próximos años, por lo que se traslada

aldetik, 2012rako zenbait jarduera bermatuko ditu, ordezkaturako azpisektore guztiek adostutakoak eta Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Lehiakortasun eta Berrikuntza Planarekin (2010-2013) bat etorrita.

## B | GARAPENA

- Bertaratutakoak banan-banan aurkeztu dira, Turismo Mahaiko behin-behineko ordezkarien berri emateko.
- Presidenteak hasiera eman dio Turismo Mahaiari, eta 2011n turismoko azpisektore guztiek turismoan egin duten ahalegina zehaztu du, eta Mahaian parte hartzera animatu ditu.
- Idazkariak hasiera eman die aztertu beharreko gaiei:

### 1 || TURISMO-MAHAIA ||

Eskualdeko kudeaketa-eredu berria jarri da mahai gainean, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzarekin bat etorrita, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren bidez; horrekin zuzeneko harremana izango du turismoa kudeatzeko erakundeak (ADR Gorbeialde).

Eredu berri horrek partaidetza publiko eta pribatua behar du, datozen urteetarako turismo arloko gogoetak eta jarduerak abian jartzeko. Beraz,

una metodología de representación que desde el resto de comarcas de Euskadi también se abordará. Éste es el caso de las Mesas de Turismo donde estarán los representantes de los diferentes subsectores de las actividades turísticas del destino. A su vez, existe una Mesa Institucional , donde existe una representación municipal y sectorial que toma las últimas decisiones sobre las propuestas de la mesa anteriormente citada. Como complemento, co-habitan las Mesas Subsectoriales, foros de discusión y elaboración de propuestas de los subsectores representados en la Mesa de Turismo y que sus representantes trasladarán a la misma. Por último, existirán un modelo de gestión intersectorial denominado Grupos de Trabajo en la que los diferentes subsectores se unirán para proyectos turísticos específicos.

Así pues, se presenta la representación de los sectores públicos y privados de la Mesa de Turismo de GORBEIALDEA, de la manera siguiente:

ordezkaritza-metodologia baten berri eman da, eta Euskadiko gainerako eskualdeetatik ere horri helduko zaio. Hori da, hain zuzen ere, destinoko turismo-jardueretako azpisektore ezberdinetako ordezkariak egongo diren Turismo Mahaien kasua. Halaber, Erakunde Mahaia dago. Mahai horretan, udaleko eta sektoreko ordezkariak dago, eta horrek azken erabakiak hartzen ditu lehen aipatutako mahaiaren proposamenei buruz. Osagarri modura, aldi berean, Mahai Azpisektorialak daude. Mahai horiek Turismo Mahaian ordezkatuta dauden azpisektoreen proposamenak egiteko eta eztabaidatzeko foroak dira. Horien ordezkariak Turismo Mahaira eramango dituzte gai horiek. Azkenik, sektore-arteko kudeaketa-eredua egongo da, Lantaldeak izenekoak. Horretan, azpisektore ezberdinak batu egingo dira, turismo-proiektu espezifikotarako.

Horrela, bada, GORBEIALDEko Turismo Mahaiko sektore publiko eta pribatuen ordezkariak aurkeztu da, honela:

SEKTORE PUBLIKOA	ORDEZKARI KP.
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen presidentzia	1
Eskualdeko udalak	3
Eusko Jauriaritza	1
Bizkaiko Foru Aldundia	1
SEKTORE PRIBATUA (azpisektoreak)	
Ostatuak (hotelak, landetxeak, nekazaritza-turismoa, campingak , aterpetxeak, etab.)	2
Jatetxeak, tabernak eta kafetegiak	1
Lehenengo sektorea eta artisautza	1
Kultura, kirol, aisialdi elkarteak, etab.	1
Turismo-zerbitzuen enpresak	1
Arreta, harrera eta informazio zentroak (turismo-bulegoak, parketxeak, museoak, etab.)	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>13</b>

<p>Además, se determina la posibilidad de contar con la asistencia de consultores y otros representantes que no contarán con voto como Basquetour y la Cuadrilla de Zuia, entre otros.</p> <p><b>Se da por constituida la Mesa de Turismo de Gorbeialdea por unanimidad de los asistentes.</b></p> <p>A continuación, se presenta el Reglamento de la Mesa de Turismo aprobado por la Mesa Institucional el 30 de noviembre de 2011.</p> <p>Se realizan las siguientes aportaciones por los asistentes:</p>	<p>Horrez gain, botorik izango ez duten aholkulariak eta beste ordezkari batzuk ere izateko aukera zehaztu da, hala nola, Basquetour eta Zuiako Koadrila, besteak beste.</p> <p><b>Bertaratutakoek aho batez erabaki dute Gorbeialdeko Turismo Mahaia eratzea.</b></p> <p>Jarraian, Turismo Mahaiaren araudia aurkeztu da, Erakunde Mahaiak onetsitakoa 2011ko azaroaren 30ean.</p> <p>Bertaratutakoek ekarpen hauek egin dituzte:</p>
---	--

Ordezkaritza / Representación	Erakundea, enpresa / Entidad, empresa	Izen – abizenak / Nombre y apellidos
<b>Udala / Ayuntamiento</b>	Areatzako Udala	Josu Basozabal
<p><i>Araudiaren 8.b artikuluan Udalerrien Mahai Azpisektoriala sortzeko beharra gehitzea iradoki da. Horko ordezkaritza izango ziren Erakunde Mahaiaik hautatutako Turismo Mahaiko udaletako egungo kideak.</i></p> <p><i>Egitura garrantzitsu eta beharrezkoa sortzeko egin den lan handia gehitu da, eta turismo-proiektuak batera eraikitzeke eskatu da.</i></p> <p>Se sugiere añadir en el artículo 8.b del reglamento la necesidad de crear una Mesa Subsectorial de Municipios de la que serían representantes los actuales miembros de ayuntamientos de la Mesa de Turismo elegidos por la Mesa Institucional.</p> <p>Se añade la importante labor realizada para la creación de una estructura importante y necesaria así como se insta a construir conjuntamente los proyectos turísticos.</p>		
<b>Udala / Ayuntamiento</b>	Dimako Udala	Oier Belasko
<p><i>Mahai ezberdinen deialdiak zuzenean Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartetik egitea iradoki da.</i></p> <p>Se sugiere que las diferentes convocatorias de las diferentes mesas se realice directamente desde la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde.</p>		
<b>Enpresa / Empresas</b>	Iparnature S.L.	Iñigo Barañano
<p><i>Araudiaren arabera, presidenteordea izendatzeko beharra planteatu da; hori Erakunde Mahaiaik egin beharko luke.</i></p> <p>Se plantea la necesidad, según reglamento, de nombrar un Vice-presidente que debería hacerlo la Mesa Institucional.</p>		
<b>Ostatua / Alojamiento</b>	Hotel & Spa Etxegana	Luis M <sup>a</sup> Orcera
<p><i>Ikuspegi positiboa erakutsi da, sektore publiko eta pribatuak komunean lantzeko eta legeak egiteko erabiliko den mahaia sortzeko erabakiari dagokionez.</i></p> <p>Se muestra una visión positiva sobre la decisión de crear la mesa que servirá a la hora de legislar y trabajar en común los sectores públicos y privados.</p>		
<b>Presidentea / Presidente</b>	ADR Gorbeialde LGE	Txomin Ozerinjauregi
<p><i>Turismo Mahaiko Presidenteordetzaren behararekin lotuta, adierazi da Erakunde Mahaiko presidenteordea Dimako Udala dela.</i></p> <p>En relación con la necesidad de Vicepresidencia de la Mesa de Turismo, se destaca que el vicepresidente de la Mesa Institucional es el Ayuntamiento de Dima.</p>		
<b>Bestelakoak / Otros</b>	Zuiako Koadrila / Cuadrilla de Zuia	Oihana Mtz. Errasti
<p><i>Jakinarazi da Zuiako Koadrilako Turismo Mahaia, hau egin baino bi egun lehenago eraturakoa, ados dagoela Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearekin batera lan egiten jarraitzeko turismo-gaietan, azken urteetan egin den bezala.</i></p> <p><i>Gorbeia Bizkaiko eta Arabako isurialdeen arteko lantaldeak komunak izateko interesa agertu da, 2011n Gorbeia Club-en kasua izan den bezala.</i></p> <p>Se informa de que la Mesa de Turismo de Cuadrilla de Zuia, constituida dos días antes de la celebración de ésta misma, queda de acuerdo en seguir trabajando conjuntamente con la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde en temática turística como se viene haciendo en los últimos años.</p> <p>Se traslada el interés de que los grupos de trabajo sean comunes entre la vertiente vizcaína y alavesa del Gorbeia como ha sido el caso de Gorbeia Club en 2011.</p>		

**Teniendo en cuenta estas propuestas, se da por corroborado el reglamento de la Mesa de Turismo de Gorbeialdea.**

Por último, se menciona la **provisionalidad de las representaciones** de los agentes privados en la Mesa de Turismo, que necesitará de mayorías por las Mesas Subsectoriales a las que representan. Para ello los representantes junto con el Secretario de la Mesa de Turismo, convocarán dichas mesas para confirmar esos representantes u otros, así como para recoger las primeras propuestas a trasladar a la Mesa de Turismo.

## 2 || TURISMO 2011 ||

Se trasladan las actividades realizadas en turismo durante el 2011 relativas a la implementación y desarrollo de tácticas de producto del Plan de Marketing de Euskadi 2010-2013 mediante la Viceconsejería de Turismo y Comercio de Gobierno Vasco y Basquetour- Agencia Vasca de Turismo.

Se trata el proyecto de Experiencias Gorbeia Central Park, así como el proceso de candidatura, selección, creación, Gorbeia Club y la puesta en marcha el 14 de julio de 2011. Se detalla en profundidad el proceso llevado a cabo por las 80 empresas integrantes del Gorbeia Club en 2011 así como el plan de acción llevado a cabo por la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde conjuntamente con la Cuadrilla de Zuia.

Se realizan las siguientes aportaciones por los asistentes:

**Proposamen horiek kontuan hartuta, berretsizat jo da Gorbeialdeko Turismo Mahaiaren araudia.**

Azkenik, Turismo Mahaiko eragile pribatuen **ordezkaritzen behin-behinekotasuna** aipatu da; gehiengoak behar izango dituzte ordezkatzan dituzten Mahai Azpisektorialetatik. Horretarako, ordezkariak, Turismo Mahaiko idazkariarekin batera, mahai horiek deituko dituzte, ordezkari horiek edo beste batzuk berresteko, eta Turismo Mahaira eramateko lehenengo proposamenak jasotzeko.

## 2 || TURISMO 2011 ||

2011n turismoan egin diren jardueren berri eman da, Euskadiko Marketing Planeko (2010-2013) produktuaren taktikak garatu eta ezartzeari buruzkoak, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzaren eta Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren bitartez.

Gorbeia Central Park esperientzien proiektua aztertu da, bai eta hautagaitza-prozesua, hautaketa, sorrera, Gorbeia Club eta 2011ko uztailaren 14an abian jartzea ere. Gorbeia Club osatzen duten 80 enpresek 2011n eginiko prozesua sakonki zehaztu da, bai eta Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteak Zuiako Koadrilarekin batera egin duen ekintza-plana ere.

Bertaratutakoek ekarpen hauek egin dituzte:

Ordezkaritza / Representación	Erakundea, enpresa / Entidad, empresa	Izen – abizenak / Nombre y apellidos
<b>Informazioa / Información</b>	Orozkoko Museoa	Nerea del Campo
<p><i>Esperientzien katalogoak esperientzia gehiegi dituela nabarmendu da, eta, etorkizunean, horri buruzko gogoeta egin beharko litzatekeela. Hala ere, oraindik goiz da bakoitzaren arrakasta zehazteko.</i></p> <p><i>Sektorean guztion artean elkar ezagutzeko beharra dagoela aipatu du, bai eta gure lanaren xedea den destinoa ezagutzeko beharra ere. Horrekin lotuta, sektore turistikorako txangoren bat egitea proposatu du Gorbeiatik eta bere ingurutik.</i></p> <p><i>Turismo-informazioaren arduradunak esperientzien proiektuarekin eta horko partaideekin sensibilizatzeko daukan garrantzia zehaztu da, horiek duten bitartekari-izaera dela-eta.</i></p> <p><i>Establezimenduek turismo-kalitatearen estandar handiagoak izan behar dituztela ere nabarmendu da.</i></p> <p>Se destaca que el catálogo de experiencias cuenta con demasiadas experiencias y que en el futuro se debería reflexionar al respecto, aunque aún es pronto para determinar el éxito de cada una.</p> <p>Hace mención a la necesidad del sector de conocerse entre todos y de conocer el destino en el que trabajamos, proponiendo la realización de alguna excursión para el sector turístico por Gorbeia y su entorno.</p> <p>Se determina la importancia de sensibilizar de manera muy directa a los responsables de información turística con el proyecto de experiencias y sus participantes, debido al carácter intermediario que éstos tienen.</p> <p>Se destaca también la necesidad de que los establecimientos cuenten con mayores estándares de calidad turística.</p>		
<b>Ostatua / Alojamiento</b>	Hotel Balneario Areatza	Iker Mintegi
<p><i>Turista esperientziez goatzera eskualdean gera dadin ahalegin handia egin behar dela aipatu du. Nabarmendu da esperientzien merkaturatze ona egiteko oso garrantzitsua dela establezimenduak eurak esperientzia horien banaketa-kanalak izatea. Izan ere, establezimenduek operadore-sarea daukate eta horiekin egiten dute lan, eta, gainera, bezeroak erakartzeko gaitasun handiagoa daukate. Bestalde, aipatu da oso-oso garrantzitsua dela tokikoa indartzea eta mentalitate-aldaketa bat eragitea eskualde-sektorean.</i></p> <p><i>Touroperadoreekin eta agentziekin akordioak egiteari garrantzia eman zaio, benetako merkaturatzea abian jartzeko.</i></p> <p>Menciona el gran esfuerzo que se ha de realizar para que el turista se quede en la comarca a disfrutar de las experiencias. Se destaca la importancia que para la buena comercialización de las experiencias tiene el que los propios establecimientos puedan ser los canales de distribución de las mismas, ya que son éstos quienes cuenta con una red de operadores con los que trabajan y cuentan con una mayor capacidad de captar clientes. Por otro lado, se destaca la vital importancia de potenciar lo local así como generar un cambio de mentalidad en el sector comarcal. Se da importancia a realizar acuerdos con TT.OO. y Agencias para poner en marcha una comercialización real.</p>		
<b>Ostatua / Alojamiento</b>	Hotel & Spa Etxegana	Luis M <sup>a</sup> Orcera
<p><i>Sektoreak merkaturatzen ikasi behar du, eta ostatu-establezimenduek kanpoko ikuspegia eta zerbitzu-mentalitatea izan behar dute.</i></p> <p>Se destaca la necesidad por parte del sector de aprender a comercializar y contar con una mentalidad de servicio y visión exterior por parte de los establecimientos de alojamiento.</p>		
<b>Presidentea / Presidente</b>	ADR Gorbeialde LGE	Txomin Ozerinjauregi
<p><i>Sektorea batzea garrantzitsua dela nabarmendu da, turismo-arloko 2011ko proiektuak bezalakoak aurrera eramateko. Denak batera lan egiten jarraitzera animatzen du, trenetik</i></p>		



*jaitsi barik.*

Se resalta la importancia de agrupar al sector para llevar adelante proyectos como los del 2011 en turismo y se anima a seguir trabajando en común y no bajarse del tren.

<b>Bestelakoak / Otros</b>	Zuiako Koadrila / Cuadrilla de Zuia	Oihana Mtz. Errasti
----------------------------	--	---------------------

*2011n eginiko lan handia nabarmendu du, proposamen berritzaile eta deigarri bati esker, Gorbeialde eskaintza bereizteko Euskadiko gainerako mendi-eskualdeetako eskaintzatik. Oso urrats garrantzitsua izan zen Sailburuordetzak top eta playground esperientzia bezala hautatzea. Gaur egun alde horretan turismoak daukan garrantzia eta aukera ona nabarmendu dira.*

*Horrela, barneko trebatze-bidaiak egitea proposatzen da turismoarekiko lotura daukaten eragileekin, Anfitrioiak prestakuntza-programaren barruan, inguruko baliabideak ezagutzeko.*

Destaca la gran labor realizada durante el 2011, gracias a una propuesta innovadora y llamativa para diferenciar la oferta de Gorbeia de la del resto de comarcas de montaña de Euskadi. Un paso muy importante fue la selección por parte de la Viceconsejería como experiencias top y playground. Se incide en la buena oportunidad e importancia del turismo en la zona actualmente.

Así, se propone realizar uno o varios viajes de familiarización internos con los agentes vinculados al turismo dentro del programa de formación Anfitriones con el fin de conocer los recursos de la zona.

<b>Bestelakoak / Otros</b>	Gorbeia Central Park	Ioar Galbarriatu
----------------------------	----------------------	------------------

*Parte hartu duten instituzio eta erakunde guztiek turismoan egin duten lan handia eta barneko lana ere aipatu dira. Eragile-kopurua hain handia izanik, adostasuna lortzea zaila dela aipatu da, eta 2012an proiektua hobetu egin behar dela.*

Se menciona la gran labor realizada en turismo así como el trabajo interno por parte de todas las instituciones y entidades participantes. Se incide en lo difícil que resulta llegar a consenso entre un número tan elevado de agentes, así como la necesidad de mejorar el proyecto durante el 2012.

### 3 || TURISMO 2012 ||

Se plantea un nuevo modelo de gestión y desarrollo turístico para la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde alineado con los departamentos y actividades de la Agencia Vasca de Turismo – Basquetour. Cuatro nuevas áreas que permiten contar con una mejor gestión de los proyectos y que garantiza el trabajo en paralelo con el destino Euskadi y su Viceconsejería de Turismo y Comercio.

Estrategia, Competitividad, Producto y Marketing son las áreas propuestas a desarrollar. Se detalla toda la información relativa a las mismas y se propone un esquema de trabajo general para el 2012 que incluye la estructura de personal

### 3 || TURISMO 2012 ||

Turismo-kudeaketa eta -garapenerako eredu berria planteatu da Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearantz, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren jarduerekin eta sailekin bat eginda. Lau arlo berriei esker, proiektuak hobeto kudeatuko dira, eta Euskadi destinoarekin eta Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzarekin paraleloan eginiko lana bermatuko da.

Estrategia, Lehiakortasuna, Produktua eta Marketinga dira garatu beharreko proposatutako arloak. Horiei buruzko informazio osoa zehaztu da, eta 2012rako lan-eskema orokorra proposatu da. Hori garatzeko beharrezko langile-egitura

<p>necesaria para desarrollarla así como los ámbitos de actuación específicos de cada eje.</p> <p>Se realizan las siguientes aportaciones por los asistentes:</p>	<p>jasotzen da, bai eta ardatz bakoitzeko jarduera-esparru espezifikoak ere.</p> <p>Bertaratutakoek ekarpen hauek egin dituzte:</p>
---	---

Ordezkaritza / Representación	Erakundea, empresa / Entidad, empresa	Izen – abizenak / Nombre y apellidos
<b>Ostatua / Alojamiento</b>	Hotel Balneario Areatza	Iker Mintegi
<p><i>Produktua sortzen jarraitzeko egin behar den lan garrantzitsua nabarmendu da, bezeroen kontsumoan eragin handia izan dezakeelako; taktikak ere indartu behar dira, merkatuko eskariaren arabera.</i></p> <p>Se destaca la labor importante que se ha de realizar en seguir creando producto, incidiendo en el impacto que pueda generar en el consumo por los clientes y reforzando las tácticas según la demanda de mercado.</p>		
<b>Ostatua / Alojamiento</b>	Hotel & Spa Etxegana	Luis M <sup>a</sup> Orcera
<p><i>Sektore pribatua sentsibilizatu behar da eta antolaketa egituratua lortu behar da, 2012rako xede bezala, eta plana garatzea ahalbidetu behar da.</i></p> <p>Se incide en la necesidad de sensibilización y de organización estructurada del sector privada como meta a conseguir para el 2012 y posibilitar el desarrollo del plan.</p>		
<b>Bestelakoak / Otros</b>	ADR Gorbeialde LGE	Peli Manterola
<p><i>IKT-k natura-produktu bat abian jarri duela jakinarazi da. Produktu horrek geoturismoaren arloa lantzen du, eta, beraz, interesgarria izan daiteke, Indusiko Karstari esker Dima udalerrriak daukan turismo-baliabidea dela-eta.</i></p> <p>Se informa sobre la existencia de un producto de naturaleza puesto en marcha por IKT que aborda el ámbito del geoturismo, lo que podría resultar de interés dado el recurso turístico en el municipio de Dima gracias al Karst de Indusi.</p>		

<u>4    URT –OTS Timeline ENE-FEB   </u>	<u>4    URT –OTS Timeline ENE-FEB   </u>
<p>En este momento de la reunión se propone a los asistentes fijar las fechas para la siguiente Mesa de Turismo así como las Mesas Subsectoriales que han de realizarse con antelación a ésta.</p> <p><b>Se decide que la II. Mesa de Turismo será el Martes 31 de enero de 2012 a las 16:00 horas en la Sede de la Asociación de</b></p>	<p>Batzarraren une honetan, bertaratutakoei proposatzen zaie hurrengo Turismo Mahaia egiteko datak ezartzeko, bai eta horren aurretik egin behar diren Mahai Azpisektorialetarako datak ere.</p> <p><b>II. Turismo Mahaia 2012ko urtarrilaren 31n (asteartea) egitea erabaki da,</b></p>

**Desarrollo Rural Gorbeialde en Areatza.**

**Las Mesas Subsectoriales se realizarán en los siguientes periodos:**

>>> Mesa Subsectorial Alojamientos : 24 o 25 enero a la tarde

>>> Mesa Subsectorial Información y Empresas: 26 enero a la mañana

>>> Mesa Subsectorial Asociaciones : Semana del 23 – 29 por la tarde

>>> Mesa Subsectorial Municipios: Se debatirá en la Mesa Institucional

>>> La Mesa Subsectorial de Restauración y de Sector Pimario queda pendiente de validar con representantes.

**5 || FITUR 2012 ||**

Como último tema a tratar, se aborda la participación de Gorbeia Central Park con motivo de la feria internacional de turismo de Madrid – FITUR, que tendrá lugar del 18 al 22 de enero.

Se detalla las acciones a desarrollar por parte del equipo técnico de la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde en Fitur, que se orientarán en base al nuevo modelo de ejes de actuación (Estrategia, Competitividad, Producto y Marketing) . Entre algunas de ellas se destaca la participación en jornadas técnicas y formaciones específicas para técnicos, participación en workshops con empresas del sector, reuniones concertadas con Tour Operadores y Agencias que posibiliten relaciones comerciales, encuentros con destinos europeos para determinar su

**16:00etan, Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartearen egoitzan (Areatzan).**

**Mahai Azpisektorialak aldi hauetan egingo dira:**

>>> Ostatuen Mahai Azpisektoriala: urtarrilaren 24an edo 25ean, arratsalde.

>>> Informazioaren eta Enpresen Mahai Azpisektoriala: urtarrilaren 26an, goizez.

>>> Elkarteen Mahai Azpisektoriala: 23 – 29 bitarteko astean, arratsalde.

>>> Udallerrien Mahai Azpisektoriala: Erakunde Mahaian eztabaidatuko da.

>>> Jatetxeen eta Lehenengo Sektorearen Mahai Azpisektoriala ordezkariekin balidatzeko geratu da.

**5 || FITUR 2012 ||**

Aztertze azken puntuan, Gorbeia Central Park-en parte-hartzea aztertu da urtarrilaren 18tik 22ra Madrilen egingo den nazioarteko turismo-azokan (FITUR).

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteko lantalde teknikoak Fitur-en egin beharreko ekintzak zehaztu dira. Ekintza horiek jarduera-ardatzen eredu berriaren arabera bideratuko dira (Estrategia, Lehiakortasuna, Produktua eta Marketinga). Besteak beste, hauek nabarmentzen dira: teknikarientzako jardunaldi teknikoetan eta prestakuntza espezifikoetan parte hartzea, sektoreko enprekin workshop-etan parte hartzea, touroperadoreekin eta agentziekin hitzartutako batzarrak egitea merkataritza-harremanak

actividad competitiva y posibilitar la visita técnica del 2012, así como la participación en el Concurso de Turismo Activo de FITUR por parte de Gorbeia Central Park Euskadi en la modalidad de naturaleza, entre muchas otras acciones.

Por último **se insta a los participantes a asistir en visita de trabajo a FITUR 2012** junto con el Gerente de la Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde el día 18 de enero de 2012, en viaje de día (ida y vuelta) con el objetivo de sensibilizarse con las actividades turísticas que se llevarán a cabo y conocer de manera intrínseca este tipo de foros turísticos.

**Desde la Mesa de Turismo, se cuenta con la confirmación de asistencia de:**

- Ayto de Areatza
- Hotel Etxegana
- Ayto de Orozko
- Museo de Orozko
- Iparnature S.L.
- Gerente de Gorbeialde

**Esta propuesta se trasladará también a la Mesa Institucional.**

### 3. Bileraren bukaera / Fin de la reunión

Antes de finalizar la Mesa de Turismo se solicita a todos los asistentes cumplimenten una encuesta de satisfacción para evaluar el grado de operatividad de la

ahalbidetzeko, Europako destinoekin topaketak egitea horien lehia-jarduera zehazteko eta 2012ko bisita tekniko ahalbidetzeko, eta Gorbeia Central Park Euskadi-k FITUREko Turismo Aktiboaren Lehiaketan parte hartzea naturaren modalitatean. Horiez gain, beste ekintza asko ere egingo dira.

Azkenik, **parte-hartzaileei eskatzen zaie, laneko bisitan, FITUR 2012ra joateko** Gorbeialde Landa Garapenerako Alkarteko gerentearekin batera 2012ko urtarrilaren 18an, egun bateko bidaian (joan eta etorri), egingo diren turismo-jardurekin sentsibilizatzeko eta mota honetako turismo-foroak barnetik ezagutzeko.

**Turismo Mahaian, honako hauek baieztatu dute joango direla:**

- Areatzako Udala
- Etxegana Hotela
- Orozkoko Udala
- Orozkoko Museoa
- Iparnature S.L.
- Gorbeialdeko gerentea

**Proposamen hau Erakunde Mahaiari ere jakinaraziko zaio.**

### 4. Bileraren bukaera / Fin de la reunión

Turismo Mahaia amaitu aurretik, bertaratutako guztiei eskatu zaie gogobetetasun-inkesta bat betetzeko,

misma y que tras valorar las fichas cumplimentadas, tiene el siguiente resultado:  ( 1 siendo muy de acuerdo y 5 totalmente desacuerdo)	mahaiaren eraginkortasun-maila ebaluatzeko. Betetako fitxak baloratu ostean, hau izan da emaitza:  (1 erabat ados eta 5 erabat desados izanda)
---	--

Itema	Batez besteko puntuazioa / Puntuación Media
<b><i>Turismo Mahaia turismoari buruzko ezagutza handitzeko balio izan du</i></b> <b>La Mesa de Turismo ha servido para aumenta el conocimiento sobre el turismo</b>	1.72
<b><i>Turismo Mahaia praktikoa eta erabakitzailea da</i></b> <b>La Mesa de Turismo resulta práctica y resolutive</b>	1.72
<b><i>Erabakiak hartzeko informazio nahikoa transmititzen da</i></b> <b>Se transmite la suficiente información para la toma de decisiones</b>	1.72
<b><i>Emandako informazioak lagundu egiten dio ordezkariari</i></b> <b>La documentación aportada ayuda al representante</b>	1.27
<b><i>Eragileen artean komunikazio nahikoa egon da</i></b> <b>Se ha dado la suficiente comunicación entre los agentes</b>	1.63
<b><i>Zure ustez, Turismo Mahaiaren edukia interesgarria izan da</i></b> <b>El contenido de la Mesa de Turismo te ha resultado de interés</b>	1.30

<b>A las 13:00 se da por concluida la I. Mesa de Turismo de Gorbeialdea</b>  <b>Secretario de la Mesa de Turismo</b> Iñaki Saenz de la Fuente	<b>13:00etan amaitutzat jo da Gorbeialdeko I. Turismo Mahaia</b>  <b>Turismo Mahaiko idazkaria</b> Iñaki Saenz de la Fuente
--	--